

2018an Euskal AEn sortutako balio erantsiaren % 37 hiru hiriburuetan sortu da

Azpimarratu beharra dago jarduera nagusiki Zerbitzuen sektorean (% 44,8) eta Eraikuntzaren sektorean (% 34,6) bildu dela, hiru hiriburuaren artean aldeak badaude ere

Eustatek argitaratutako datuen arabera, Bilbo, Donostia eta Gasteizko udalerriek (Euskal AEko 3 hiriburuak) 2018an sortutako Balio Erantsi Gordina (BEG) Euskal AEko BEG osoaren % 37,2ra iritsi da. Hiru udalerri horietan sortutako BEGaren bolumenik handiena Zerbitzuen sektorekoa izan da, sektore horretan sortutako BEG osoaren % 44,8 sortu baita bertan. Nolanahi ere, Bilbo da Euskal AEko zerbitzu-jarduerari ekarpenik handiena egin dien hiriburua (guztizkoaren % 20,6).

Industria eta energiaren sektoreari dagokionez, hiru hiriburuak industriaren sektoreko BEG osoaren % 17,3 sortu dute. Dena dela, ekarpen hori sektore horrek Gasteizen duen indarrean oinarritu da nagusiki. Izan ere, Gasteizek Euskal AEko *Industria eta energiaren* sektoreko guztizkoaren % 12,7 bildu du, *Automozioaren industriaren* eta *Kautxuzko produktuen* manufaktura-sektoreei esker.

EAEko hiriburuetakoko balio erantsi gordina (BEG), jarduera-sektoreen arabera. Prezio arruntak. Milaka euro. 2018

	Euskal AE	Hiriburuak guztira	Bilbao	Donostia / San Sebastián	Vitoria-Gasteiz
Guztira	69.172.651	25.743.639 37,2%	10.865.097 15,7%	6.866.018 9,9%	8.012.524 11,6%
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	603.464	24.558 4,1%	6.126 1,0%	2.690 0,4%	15.742 2,6%
Industria eta energia	16.685.651	2.893.021 17,3%	444.988 2,7%	323.185 1,9%	2.124.848 12,7%
Eraikuntza	4.040.964	1.399.787 34,6%	545.198 13,5%	458.385 11,3%	396.204 9,8%
Zerbitzuak	47.842.572	21.426.273 44,8%	9.868.785 20,6%	6.081.758 12,7%	5.475.730 11,4%

Iturria: Eustat. Udal BPG


2018an **Lurralde Historiko** bakoitzean sortutako BEGak udalerrietan duen banaketa aztertuz gero ikus daitekeenez, BEGaren banaketak egitura desberdina du udalerri bakoitzean.

Arabak, jarduera hiriburuan bilduta dago nagusiki, lurraldeko BEGaren % 72,1 sortu baita bertan

Arabako Lurralde Historikoan, Gasteizko udalerriak Lurralde Historikoko guztizkoaren % 72,1 bildu du, eta 2018an sortutako BEGa, prezio korranteetan, 8.012,5 milioi eurora iritsi da.

Horrela, beraz, Arabako gainerako udalerrien eragina txikia izan da, Arabako hiriburuak jarduera-kontzentrazio handiaren ondorioz. Balio erantsiari dagokionez, hurrengo udalerriak Audio eta Amurrio dira (595,3 milioi euroko eta 384,8 milioi euroko BEGarekin, hurrenez hurren). Beraz, bi udalerri horiek % 5,4ko eta % 3,5eko ekarpena egin diote Arabako BEGari, hurrenez hurren.

Balio erantsi gordina (BEG), guztira, milaka eurotan, Arabako udalerrien arabera



Iturria: Eustat. Udal BPG

Jarduera-sektoreak kontuan hartuta ere, BEGik handiena sortu duen udalerria Gasteiz dela ikus daiteke, eta ia sektore ekonomiko guztietan gainera. Izan ere, Gasteizen lurraldeko BEGaren % 59,2 sortu da *Industria eta energia*, % 74,3 *Eraikuntzaren* sektorean, eta % 80,7 *Zerbitzuen* sektorean.

Salbuespen gisa, *Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren* sektorean banaketa askoz homogeneoagoa izan da lurraldeko udalerri guztien artean. Izan ere, hiriburuko ehunekoa % 8,0 baino ez da izan Arabako nekazaritzaren jardura osoan. Nolanahi ere, ardo-jarduera handiko Guardiako udalerria izan da 2018. urtean Arabako Lurralde Historikoaren barruan BEGik handiena sortu duena sektore horretan (sektorearen % 10,3).

Balio Erantsi Gordinik handiena duten Arabako udalerriak, sektoreka. Milaka euro. 2018

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ARRANTZA			INDUSTRIA ETA ENERGIA			ERAIKUNTZA			ZERBITZUAK		
		%			%			%			%
Araba/Álava	197.524	100,0%	Araba/Álava	3.589.694	100,0%	Araba/Álava	533.517	100,0%	Araba/Álava	6.784.725	100,0%
Laguardia	20.396	10,3%	Vitoria-Gasteiz	2.124.848	59,2%	Vitoria-Gasteiz	396.204	74,3%	Vitoria-Gasteiz	5.475.730	80,7%
Oyón-Oion	16.852	8,5%	Amurrio	233.113	6,5%	Laudio/Llodio	48.376	9,1%	Laudio/Llodio	319.538	4,7%
Vitoria-Gasteiz	15.742	8,0%	Laudio/Llodio	225.683	6,3%	Amurrio	12.405	2,3%	Amurrio	134.668	2,0%


Iturria: Eustat. Udal BPG

Zerbitzuen sektorea da Bizkaiko Lurralde Historikoko jardura nagusia

Bizkaiko Lurralde Historikoan, BEGik handiena sortu duen udalerria, termino absolutuetan, Bilbo izan da. Zehazki, 10.865,1 milioi euroko BEGa sortu du 2018an, hau

da, Bizkaian sortutako jarduera ekonomiko osoaren % 31,1. Haren atzetik, geografikoki Bilbo inguruan dauden udalerriak kokatu dira (Bilbo Handikoak), eta honako hauek nabarmendu dira: Barakaldo (2.170,5 milioi euro), Getxo (1.525,6 milioi euro), Zamudio (1.321,9 milioi euro), Leioa (1.304,3 milioi euro) eta Basauri (1.159,1 milioi euro).

Balio erantsi gordina (BEG), guztira, milaka eurotan, Bizkaiko udalerrien arabera



Iturria: Eustat. Udal BPG

Sektoreen arabera egiturari dagokionez, *Zerbitzuen* sektorea da Bizkaiko Lurralde Historikoko jarduera nagusia, eta Bilbo Handiko udalerriak dira oro har jarduera horietan BEGik handiena sortu dutenak. Haien artean, arestian adierazi dugunez, Bilbo nabarmendu da. Izan ere, Bilbok zerbitzuen jardueren barruan sortu duen balio erantsia lurralde osoan sortutakoaren % 38,1 izan da. Sektore horretako hurrengo bi udalerririk garrantzitsuenak Barakaldo eta Getxo izan dira (% 7,1 eta % 5,5, hurrenez hurren).

Industria eta energiaren sektorean, jarduera askoz sakabanatuago dago lurralde osoan. Nolanahi ere, Zamudioko udalerria nabarmentzen da *Manufaktura-industrian*, eta Muskiz *Energian*. Bi udalerri horiek % 8,9ko eta % 6,4ko ekarpena egin diote Bizkaiko industria-sektoreko BEGari, hurrenez hurren.

Balio Erantsi Gordinik handiena duten Bizkaiko udalerriak, sektoreka. Milaka euro. 2018

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ARRANTZA			%	INDUSTRIA ETA ENERGIA			%	ERAIKUNTZA			%	ZERBITZUAK			%
Bizkaia	270.744	100,0%		Bizkaia	6.646.800	100,0%		Bizkaia	2.060.756	100,0%		Bizkaia	25.908.234	100,0%	
Bermeo	134.635	49,7%		Zamudio	590.954	8,9%		Bilbao	545.198	26,5%		Bilbao	9.868.785	38,1%	
Ondarroa	24.231	8,9%		Bilbao	444.988	6,7%		Barakaldo	187.278	9,1%		Barakaldo	1.835.457	7,1%	
Karrantza Harana/ Valle de Carranza	7.847	2,9%		Muskiz	422.712	6,4%		Santurtzi	109.682	5,3%		Getxo	1.412.015	5,5%	


Iturria: Eustat. Udal BPG

Azpimarratu beharra dago, halaber, kostaldeko herriek duten garrantzia Bizkaiko Lurraldeko *Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren* sektorean. Izan ere, Bizkaian sektore horren BEGa oso lotuta dago arrantza-jarduerari, eta neurri txikiagoan nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerari. Adibidez, Bermeoko udalerriak *Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzari* lotutako jarduera osoaren % 49,7 sortu du lurraldean, eta Ondarroak, berriz, % 8,9.

Gipuzkoan, industria-jarduerak lurralde osoan banatuta daude, eta udalerri asko nabarmentzen dira bertako manufaktura-jarduera dela eta

Azkenik, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, aurreko bi lurraldeetan bezala, hiriburuak (Donostiak) sortu du BEGaren bolumenik handiena. Zehazki, 6.866 milioi euroko BEGa sortu du, hau da, lurraldeko jarduera ekonomiko osoaren % 29,6.

Balio erantsi gordina (BEG), guztira, milaka eurotan, Gipuzkoako udalerrien arabera



Iturria: Eustat. Udal BPG

Hiriburutik kanpo, Irungo udalerria nabarmendu da. Irungo BEGa Lurralde Historikoko BEG osoaren % 7,3 izan zen 2018an (1.686,8 milioi euroko balioarekin). Haren atzetik, Gipuzkoarako balio erantsirik handiena sortu duten udalerriak Arrasate (813,7 milioi euro), Hernani (799 milioi euro) eta Beasain (782,2 milioi euro) izan dira. Hortaz, Arrasatek lurraldeko BEG osoaren % 3,5 sortu du, eta Hernanik eta Beasainek, berriz, % 3,4 bakoitzak.

BEGaren sektoreen arabeko banaketari dagokionez, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren egiturak antz handiagoa du Bizkaikoarekin Arabakoarekin baino, eta hiriburua (Donostia)

izan da BEGik handiena sortu duena *Eraikuntzaren* eta *Zerbitzuen* sektoreetan (% 31,7 eta % 40,1, hurrenez hurren). *Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren* sektorean, arrantzaren jarduerari lotutako kostaldeko udalerriak nabarmendu dira, hala nola Hondarribia eta Getaria (sektoreko jardueraren % 19,2 eta % 17,2, hurrenez hurren).

Balio Erantsi Gordinik handiena duten Gipuzkoako udalerriak, sektoreka. Milaka euro. 2018

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ARRANTZA		%	INDUSTRIA ETA ENERGIA		%	ERAIKUNTZA		%	ZERBITZUAK		%
Gipuzkoa	135.196	100,0%	Gipuzkoa	6.449.157	100,0%	Gipuzkoa	1.446.691	100,0%	Gipuzkoa	15.149.613	100,0%
Hondarribia	25.909	19,2%	Beasain	513.559	8,0%	San Sebastián	458.385	31,7%	San Sebastián	6.081.758	40,1%
Getaria	23.311	17,2%	Hernani	412.927	6,4%	Irun	125.962	8,7%	Irun	1.263.240	8,3%
Orio	7.252	5,4%	Oñati	333.925	5,2%	Astigarraga	81.140	5,6%	Eibar	530.882	3,5%

Iturria: Eustat. Udal BPG

Industria eta energiaren sektoreko jardueren banaketa askoz dibertsifikatuago dago lurralde osoan, eta nagusiki manufaktura-jarduerari lotuta dauden udalerrri asko dira Gipuzkoako industria-sarearen euskarria. Sektore horretan, BEGik handiena sortu duen udalerria Beasain da (% 8,0), eta, haren atzetik, Hernani eta Oñati kokatu dira (% 6,4 eta % 5,2, hurrenez hurren).

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62